

CAPÍTULO SEGUNDO

DONDE SE HABLA  
DEL VIEJO CÍNICO  
MIGUEL DE TELLAGORRI

Algunas veces, cuando su madre enviaba por vino o por sidra a la taberna de Arcale a su hijo Martín, le solía decir:

— Y si le encuentras, al viejo Tellagorri, no le hables, y si te dice algo, respóndele a todo que no.

Tellagorri, tío-abuelo de Martín, era un hombre flaco, de nariz enorme y ganchuda.

Vivía el viejo Tellagorri de una porción de pequeños recursos que él se agenciaba, y tenía mala fama entre las personas pudientes del pueblo.

La madre de Martín presintió que, dado el carácter de su hijo, terminaría haciéndose amigo de Tellagorri. Efectivamente, así fue.

II

MIGEL TELLAGORRI  
ZINIKO ZAHARRAZ  
HITZ EGITEN DENEKOA

Batzuetan, amak semea Arkaleren tabernara ardo bila bidaltzen zuenean, esaten zion:

-Eta Tellagorri zahar hori aurkitzen baduk, ez hitzik egin gero.

Tellagorri, Martinen osaba zaharra, gizon mehe bat zen, sudurra handi-handia eta kakotua zuena.

Tellagorri zaharra berak eskuratzen zituen baliabide urriekin bizi zen, eta ospe txarra zuen herriko pertsona aberatsen artean.

Martinen amak irudipena zuen, semea, zen bezalakoa izanik, Tellagorriren adiskide egingo zela. Halaxe izan zen, izan ere.

El mismo señalado día en que Martín disfrutó de la amistad de Tellagorri, obtuvo también la benevolencia de «Marqués». Marqués era el perro de Tellagorri, un perro chiquito, astuto, vagabundo, y viejo.

Tellagorri poseía un huertecillo que no valía nada, según los inteligentes, en el extremo opuesto de su casa, y para ir a él le era indispensable recorrer todo el balcón de la muralla.

Tellagorri era de la familia de los Galchagorris, la familia de los pantalones colorados, y este consonante, entre el mote de su familia y su nombre había servido al padre de la sacristana, viejo chusco que odiaba a Tellagorri, de motivo a una canción que hasta los chicos la sabían y que mortificaba profundamente a Tellagorri. La canción decía así:

(Tellagorri, Galchagorri, bien venido seas aquí. Aficionado a robar, aficionado a beber aficionado a las muchachas, eres tú.)

Tellagorriren adiskidetasunaz gozatzen hasi zen egun aipagarri hartan, Markesen onginahia ere bereganatu zuen Martinek. Markes Tellagorriren zakurra zen, zakur txikitxo bat, maltzurra, arlotea, eta zaharra.

Tellagorrik baratze txiki bat zeukan, jende buru-argiak zioenez ezertarako balio ez zuena, bere etxearen bestaldeko muturrean, eta hara joateko nahitaez harresiko balkoi osoa ibili behar izaten zuen.

Tellagorri Galtxagorrien familiakoa zen, eta familiaren ezizenaren eta bere izenaren arteko hoskidetasun horrek, umeez ere bazekiten eta Tellagorriri min handia ematen zion kanta bat asmatzeko balio izan zion seroaren aitari, Tellagorriri gorroto zion agure xeble bat.

Honela zioen kantak:

Tellagorri  
Galtxagorri  
Ongi etorri  
Onera.  
Ostutzale  
Erantzale  
Neskatzale  
Zu zera.

Tellagorri era un individualista convencido.

— Cada cual que conserve lo que tenga y que robe lo que pueda — decía.

Tellagorri, cuando le tomó por su cuenta a Martín, le enseñó toda su ciencia. Le mostró la manera de coger los higos y las ciruelas de las huertas sin peligro de ser visto, y le enseñó a conocer las setas buenas de las venenosas por el color de la hierba en donde se crían.

Esta cosecha de setas y la caza de caracoles constituía un ingreso para Tellagorri, pero el mayor era otro.

Había en la Ciudadela, en uno de los lienzos de la muralla, un rellano formado por tierra, al cual parecía tan imposible llegar subiendo como bajando. Sin embargo, Tellagorri dió con la vereda para escalar aquel rincón y, en este sitio recóndito y soleado, puso una verdadera plantación de tabaco, cuyas hojas secas vendía al tabernero Arcale.

Tellagorri uste osoko indibidualista zen.

-Nork bereari kontu egin biezaio, eta ahal duena lapur beza-esaten zuen.

Tellagorrik, Martinen kargua hartu zuenean, zekien guzti-guztia erakutsi zion. Esan zion nola hartu baratzetatik pikuak eta aranak inork ikusteko arriskurik gabe, eta erakutsi zion perretxiko onak eta pozoitsuak bereizten, hazten diren belarraren kolorea ikusita.

Perretxiko-uzta hura eta barraskilo-ehiza diru-iturria ziren Tellagorrirentzat, baina nagusia beste bat zen.

Bazen Zitadelan, harresiaren paretetako batean, lurrez eratutako irtenune zabal bat, igoz nahiz jaitsiz ezin iritsizkoa ematen zuena. Tellagorrik ordea aurkitu zuen txoko hartara igotzeko bidezidor bat, eta leku ezkutu eta eguzkitsu hartan tabako-sail egiazko bat landatu zuen; hosto lehorrak Arkale tabernariari saltzen zizkion gero.

Este camino subía apoyándose en las gruesas raíces de los árboles, constituyendo una escalera de desiguales tramos, metida en un túnel de ramaje.

El foso era lugar también interesante para Martín; las paredes estaban cubiertas de musgos rojos, amarillos y verdes; y los grandes lagartos tornasolados se tostaban al sol.

Tellagorri explicaba todo detenidamente a Martín.

Tellagorri era un sabio, nadie conocía la comarca como él, nadie dominaba la geografía del río Ibayá, la fauna y la flora de sus orillas y de sus aguas como este viejo cínico.

Le gustaba también a este viejo embromar a la gente: para Tellagorri, los perros si no hablaban era porque no querían, pero él los consideraba con tanta inteligencia como una persona.

Bide hura zuhaitzen adar lodietan bermatuz igotzen zen, mailadi desberdineko eskailera bat osatzen baitzuten adar haiek, adarrezko tunel batean sartua.

Babes-erretena ere leku interesgarria zen Martinentzat; goroldio gorriz, horiz eta berdez estaliak zeuden hormak; eta eguzkitan belzten ziren musker irisatu handiak.

Tellagorri xehexehexez azaltzen zion dena Martini.

Tellagorri gizon jakintsua zen, inork ez zuen hark bezala eskualdea ezagutzen, inork ez zituen Ibaia errearen geografia, errearen ertzetako eta uretako animaliak eta landareak ziniko zahar hark bezain ondo ezagutzen.

Jendearekin txantxetan aritzea ere gustatzen zitzaion agure hari; Tellagorrirentzat, zakurrek nahi ez zutelako ez zuten hitz egiten, baina pertsonak bezain buru-argizat zeuzkan.

Tellagorri le curtía a Martín, le hacía andar, correr, subirse a los árboles, le educaba a su manera, por el sistema pedagógico de los Tellagorris que se parecía bastante al salvajismo.

Mientras los demás chicos estudiaban la doctrina y el catón, él contemplaba los espectáculos de la Naturaleza, cazaba y daba grandes viajatas.

Algunas noches, Tellagorri, le llevó a Zalacaín al cementerio.

— Espérame aquí un momento - le dijo.

— Bueno.

Al cabo de media hora, al volver por allí le preguntó:

— ¿Has tenido miedo, Martín?

— ¿Miedo de qué?

— «¡Arrayua!» Así hay que ser - decía Tellagorri-. Hay que estar firmes, siempre firmes.

Tellagorrik zaildu egiten zuen Martin, ibilarazi egiten zion, lasterka eragin, zuhaitzetara igoarazi; bere modura hezi egiten zuen, basakeriaren antz handi samarra zuen tellagorritarren sistema pedagogikoaren arabera.

Gainerako mutilek dotrina eta katoia ikasten zuten artean, izadiaren ikuskariei begira egoten zen Martin; ehizan aritzen zen eta ibilaldi luze neketsuak egiten zituen.

Zenbait gautan, Tellagorrik hilerrira eraman zuen Zalakain.

-Egon hadi hemen pixka batean- esan zion.

Ondo da.

Ordu erdiren buruan, hara itzultzean, galdetu zion:

Ikaratu egin al haiz, Martin?

Ikaratu, zergatik?

Arraioa! Horrelakoxea izan beharra zagok- esaten zuen Tellagorrik-. Firme eutsi beharra dago, firme beti.